



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko maiatzaren 2a

40. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Estatuko eta Nafarroako gobernuak premiatzen dira poliziak ikastetxeen inguruetatik erretira ditzan, ondorio kaltegarriak dituelako drogak hartzearen arazoari begira. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da neurri jakin batzuk har ditzan podologia zerbitzua dela eta. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Adierazpen instituzionala, iragan apirilaren 11n Nafarroako Parlamentuko atarian izan ziren istiluak direla eta. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).
- Adierazpen politikoak, iragan apirilaren 22an Barañainen izandako atentatua gaitzestekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).
- Adierazpen instituzionala, gatazka armatuetan emakumeei sexu indarkeria eragiten dietenen zigorgabetasunari buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (6. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, trafikoaren gaineko eskumena berreskuratzeari buruzkoa, foru parlamentari Félix M.^a Taberna Monzón jaunak egina (7. or.).
- Galdera, Artaxoa-Larraga oinarritzko osasun eskualdeko alkate eta profesionalen aldarrikapenei buruz Nafarroako Gobernuak zer asmo duen jakitekoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (7. or.).
- Galdera, Europar Batasuneko gaiei buruzko prestakuntzarako laguntzak emateko deialdia onesten duen 78/2006 Foru Aginduan administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzeari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (8. or.).
- Galdera, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza nagusiaren web orria oraindik ere gaztelania hutsean egoteko arrazoiei buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (10. or.).

- Galdera, *Eta jaietan, zer?* kanpainari buruzkoa, foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak egina (10. or.).
- Galdera, berdintasuna eta bateragarritasuna: konpromiso bateratu baterantz esloganaren pean egin den enpleguari buruzko nazioarteko I. biltzarraren kostuari buruzkoa, foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak egina (11. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuaren 2005eko aurrekontuan egin diren aldaketei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (11. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuaren 2005eko aurrekontuan aurreikuspenak eta plangintza oker egin izanari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (12. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuaren Nafarroako lan osasunari buruzko plana izeneko kontusaila murriztu izanari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (13. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuaren laneko arriskuei eta prebentzio neurriei buruzko informazio plana izeneko kontusaila murriztu izanari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (13. or.).
- Galdera, Osasungintza finantzatzeko funtsetik Osasun Ministerioak emandako diruari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (14. or.).
- Galdera, oinarrizko osasun laguntzako zentroetan geriatrak jartzeari buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izo Biarge jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren karietara egindako inbertsioei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (15. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat, barneko igoera txanda murriztuan, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. Behin betiko izendapena (16. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Estatuko eta Nafarroako gobernuak premiatzen dira poliziak ikastetxeen inguruetatik erretira ditzan, ondorio kaltegarriak dituelako drogak hartzearen arazoari begira.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Estatuko eta Nafarroako gobernuak premiatzen dira poliziak ikastetxeen inguruetatik erretira ditzan, ondorio kaltegarriak dituelako drogak hartzearen arazoari begira."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

2006ko urtarrilaren 10etik otsailaren 19ra gauzatu da Barne Ministerioak ikastetxeen inguruan dagoen trafikoen aurkako kanpainaren lehen fasea, eta Nafarroan horrek ekarri du "aparteko errepresio neurriak" aplikatzea ikastetxeetako gazteei, drogen trafikoa kontrolatze aldera. Dagoeneko badaude trafikoen aurkako "neurri normalizatuak".

Espero izatekoa zenez, aparteko neurri horiek ez dute aurreikusitako helburuetarako emaitza onik ekarri, zeren eta ez baitute drogen trafikoa-erengatik atxilotetarik ekarri; bai, ordea, drogak

eduki edo kontsumitzeagatiko zehapen administratibo ugari. Ez gara hasiko aisialdiko eremuetan esku hartzearen emaitzak baloratzen, zeren eta oso alderdi ezberdina baita hori.

Bestalde, gazteen artean sustatu du drogen kontsumitzaileen eta segurtasun kidegoen miaketa edo atxikitzeak pairatu dituztenen lidergoa; izan ere, gazte horiek beren jokabideak indarturik ikusi dituzte ikastetxeko gainerako gazteek egoera horiek ikusi dituztenean. Neurri horiek ez dira baliagarriak gazteen jokabideak praktika osasungarriago-etara bideratzeko, eta gazteei estereotipoak ezartzen dizkiete.

Gure ustez, ikastetxeen inguruetan, errepresio neurrien orde z epe labur, ertain eta luzerako hezkuntza neurriak erabili behar dira, eta ahalegin bereziak egin behar dira drogen kontsumoarekin loturiko arazoaren prebentzioan eta gazteak bizitzarako trebetasunetan prestatzean, autonomoak eta arduratsuak izaten jakin dezaten eta drogen errealitatearen –legezko nahiz legez kanpoko drogak izan– aurrean presta daitezten.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu:

1. Polizia kidegoak erretira ditzan ikastetxeen inguruetatik, aparteko neurri hertsatzaile gisa, drogen kontsumoarekin loturiko arazoak konpontzeko dakartzan ondorio kaltegarriengatik.

2. Drogen kontsumoarekin eta bizitzarako prestakuntza aktiboarekin loturiko arazoaren prebentziarako programak sustatzea, Nafarroako ikastetxeetan aplika daitezten.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri jakin batzuk har ditzan podologia zerbitzua dela eta.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri jakin batzuk har ditzan podologia zerbitzua dela eta."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahaliko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordean eztabaidatzeko.

Nafarroako podologoek ordezkariekin eginitako lan bilera batean, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeari adierazi zioten intrusismoa gertatzen dela talde batzuei eskaintzen zaizkien zerbitzuetan. Horrek berekin ekarri du, eman ziguten informazioaren arabera, auzitegietan demandak aurkeztea, argi gera dadin nork duen lanbide horretan aritzeko gaitasuna.

Bestalde, lan bilerara etorri ziren profesionalen informazioaren arabera, komenigarria da arazo baskularrak, diabetesa edo hezur-deformazioak izateagatik arrisku handia duten pertsonen tratamendua ematea. Eman ziguten informazioaren arabera, biztanleen sektore horretan zerbitzu publikoak eskaintzeak berekin ekarriko luke arazoei prebentzioarekin aurre egitea, eta tratamendu

egokia eman ezean epe luzera osasun publikorako gastu handiagoa ekarriko luketen gaixotasunak saihestea.

Nafarroako Gobernuak, bere aldetik, behin eta berriz adierazi du edozein osasun prozedura berri zerbitzu-zorroan sartzeko, ebaluatuta egon behar duela, eta ebaluazio horren egiaztapenaren xedea izanen litzatekeela honako baldintzak betetzen ote diren jakitea:

a) Benetan lagungarria izatea gaixotasunen prebentzioan, diagnosian eta tratamenduan.

b) Beste aukera batzuen aldean hobekuntza frogatua ekartzea segurtasunean, eraginkortasunean, eragingarritasunean, efizientzian edo erabilgarritasunean.

c) Lege betekizunak betetzea, sendagai edo produktu sanitarioak erabiltzen badira.

Gure ustez, kasu honetan baldintza horiek betetzen dira eta, gainera, Nafarroak osasun arloko eskumenak dituenek, zerbitzu hori osasun publikoan behar den kalitateaz eskaintzeko moduan dago.

Hori dela-eta, IUN/NEB parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arazo baskularrak, diabetesa edo hezur-deformazioak izateagatik arrisku handia duten pertsona-sektoreentzako podologia zerbitzuak zerbitzu-zorroan sar ditzan, horrek finantzaketa publikoa izan dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du podologia zerbitzuak dauzkaten jubilatuen zentroetan kanpaina bat egin dezan, gaixotasun horien tratamenduan langile kualifikatuak ari daitezen; horretarako, zerbitzu horiek eskaintzen dituztenei behar den titulazioa eskatuko zaie.

Iruñean, 2006ko apirilaren 19an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Adierazpen instituzionala, iragan apirilaren 11n Nafarroako Parlamentuko atarian izan ziren istiluak direla eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Eledunen Batzarrak, 2006ko apirilaren 24an egindako bilkuran, ondoko adierazpen instituzionala onetsi zuen.

Iragan apirilaren 11n Nafarroako Parlamentuko atarian izan ziren istilu tamalgarriak direla eta, Mahaia eta Eledunen Batzarrak hauxe adierazi nahi dute:

1. Guztiz errefusatzan dituela Nafarroako herritarren subirotasunaren adierazpide gorenaren den Legebiltzarraren aurrean izandako jokabide horiek, tamalez maizegi gertatzen direnak.

2. Konstituzioak babesturiko biltzeko eta adierazpenak egiteko eskubideaz baliatuz Legebiltzarraren egoitzaren aurrean manifestazioak egin nahi dituzten elkarte, sindikatu eta kolektibo guztiei exijitzen diegu egin ditzatela parlamentu-lanen garapen normala guztiz errespetatuta, uneoro ordena publikoa galarazi gabe; bestela, beren

aldarrikapenei kalte egitea besterik ez dute lortuko.

3. Foruzaingoa gure autogobernuaren oinarriko zutabeetako bat izaki, haren lana aintzat hartu eta aitortzen dugu; tamalez, Nafarroako erakunde-
en eraikinak zaintzeko eginkizunetan dihardutela, haiek errespetatzen ez dakitenean bortxazko jokabideei aurre behar izaten diete foruzainek.

4. Halaber, gure erakundeetako ordezkari batzuen jokabide batzuk errefusatzan ditugu; izan ere, erakunde horien kideak direla ahaztuta, jokabide oportunistak eta arduragabeekin zentsuratze-
ko modukoak diren eta demokraziatik gutxi duten jardura horiek sustatzen dituzte, haiek zer diren eta zer ordezkatzan duten gogoan izan gabe.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria, Rafael Gurrea Induráin

Adierazpen politikoa, iragan apirilaren 22an Barañainen izandako atentatua gaitzestekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2006ko apirilaren 24an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpen politikoa onetsi du:

“1. Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du iragan den larunbateko goizaldean Barañaingo Udaleko UPNko eledunaren saltokiaren aurka eginiko atentatua.

2. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazi nahi dio zinegotziari eta haren familiari, UPNko udal-taldeari eta Barañaingo Udalari, bai eta atentatuak kalteturiko auzoei eta Barañaingo herritar guztiei ere.

3. Nafarroako Parlamentuak aitortza berezia adierazi nahi die suteak auzoengan eragindako kalteak arintzen zuzenean esku hartu zuten Barañaingo Udaltzaingoko kideei, bai eta gainerako segurtasun kidegoei eta suhiltzaileei, prestutasun handiz jardun baitzuten beren eginkizunetan.

4. Nafarroako Parlamentuak estortsioa, txantajea eta mehatxuak errefusatzan ditu, haien xede bakarra baita herritarren askatasuna galaraztea eta haiek beldurtzea, beren ideiak askatasunez defendatzeko modua izan ez dezaten.

5. Nafarroako Parlamentuak adierazten du ezen konfiantza duela gure zuzenbideko estatuko erakunde demokratikoei jarraituko dutela aplikatzen herritarrei beren eskubideez legitimoki baliatzea bermatzen dieten arau eta tresnak.

6. Nafarroako Parlamentuak beste behin exijitzen dio ETA talde terroristari berehala desegin dadin”

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Adierazpen instituzionala, gatazka armatuetan emakumeei sexu indarkeria eragiten dietenen zigorgabetasunari buruzkoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2006ko apirilaren 24an egindako bilkuran, ondoko adierazpen politikoa onetsi du:

“Nafarroako Parlamentuak dei egiten die Kolonbia, Guatemala eta Peruko estatuei ondokoak egin ditzaten:

– Sexu bortxakeriak emakumeengan sortzen duen eragin emozionala aitortu. Sexu bortxakeria jasan duten emakumeentzako laguntza juridiko eta psikosoziala bermatu behar dute, eta era berean salaketak aurkezten dituztenen segurtasuna zaindu, biktima eta lekukoentzako babes sistema eraginkorren bitartez.

– Emakumeen aurkako bortxakeriari buruzko ikerketa kuantitatibo eta kualitatiboak sustatu, haien emaitzetatik laguntza psikosozialerako, judizializatorako, ordain integralerako eta halakorik berriz ez gertatzeko irizpideak atera daitezzen.

– Ikerketa kriminalaz arduratzen diren entitateek emakumeen eskubideen arloko prestakuntza duten langileak eta bitarteko teknikoak eta logisti-

koak izanen dituztela bermatu behar dituzte, horrela biktima-eragileak epaitu eta zehatu ahal izateko.

– Sexu bortxakeriako kasuak ikertzeko eta epaitzeko prozeduretan Erromako Estatutuko prozedura eta proba printzipioak ezarri, bereziki ondokoei buruzkoak:

– Biktimak salaketa berretsi dezan ez exijitzea, biktimaren onarpena defentsaren argudio gisa erabiltzeko debekua, biktimaren arestiko jokabide sexualari erreferentzia egiteko debekua eta epai-ketaren zati batzuk ateak itxita egiteko baimena.

– Sexu indarkeriaren biktima diren emakumeei ordaina emateko neurriek lagungarriak izan behar dute gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun-tartea ezabatzeko; alderdi ekonomikoez gain, ordain sinbolikoak emateko ekintzak eta laguntza psikosozialeko programak bildu behar dituzte, bai eta ordain kolektiboak ere.”

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, trafikoaren gaineko eskumena berreskuratzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M.^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea trafikoaren gaineko eskumena berreskuratzeari buruz foru parlamentari Félix M.^a Taberna Monzón jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Felix Taberna Monzonek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak

lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Aspaldi-aspalditik erreklamatu du Nafarroak trafikoaren arloko eskumen osoa, garai batean Espainiako Gobernuak kendu ziona. Eskumen horren eskualdatzea atzeratzen joan dira bai PSOE bai PP beren aldetik, hartutako konpromisoak alde batera utzita. Hala eta guztiz ere, Nafarroako Gobernuak, zeinak berriki gerarazi baitu Foru Hobetzearen barruan auto-gobernuak aurrera egiteko aukera, pozik edo ezer egin gabe begiratu die etengabeko atzerapen horiei.

Hori dela-eta, galdera hau aurkeztu dut:

Ez al du uste Nafarroako Gobernuak lehendakariak iritsia dela trafikoaren arloko eskumena berreskuratzeko kontuan gogor egiteko garaia?

Iruñean, 2006ko apirilaren 12an

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

Galdera, Artaxoa-Larraga oinarrizko osasun eskualdeko alkate eta profesionalen aldarrikapenei buruz Nafarroako Gobernuak zer asmo duen jakitekoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Artaxoa-Larraga oinarrizko osasun eskualdeko alkate eta profesionalen aldarrikapenei buruz Nafarroako Gobernuak zer asmo duen jakiteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera. Galdegileak

eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak erantzun diezaion.

Apirilaren 11n, Nafarroako Parlamentuan lan bilera bat egin zen Larragako, Artaxoako, Berbinztanako eta Miranda Argako udaletako ordezkariekin, osasun eskualde oinarrizko hartan oinarrizko laguntzaren arloan dauzkaten arazoak eta gabeziak azal zituzten.

Udal ordezkariak dossier bat eman zuten, non luze eta zabal azaltzen baitira 1999tik Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuarekin egini

kudeaketak; gaur arte, ordea, ez dute ezer ere aurreratu etengabeko osasun laguntzaren arloan, arratsaldean bertan egoteko guardia eskatzen baitzuten eta ez guardia presentzial lokalizatu hutsa.

Guardia presentzial lokalizatua 351/1992 Foru Dekretuaz arautu zen, hain zuzen ere orain dela 14 urte. Eskualdean gertaturiko aldaketa demografikoak ikusita, eta osasun etxea daitekeena baino gutxiago erabiltzen denez, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko galdera hau aurkezten dugu, jakiteko zein asmo dituen departamentuak Artaxoa-Larra-ga osasun eskualde oinarrizkoko alkate eta profesionalen aldarrikapenaren inguruan.

Iruñean, 2006ko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Europar Batasuneko gaiei buruzko prestakuntzarako laguntzak emateko deialdia onesten duen 78/2006 Foru Aginduan administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egindako galdera, Europar Batasuneko gaiei buruzko prestakuntzarako laguntzak emateko deialdia onesten duen 78/2006 Foru Aginduan administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikulua aitortzen ditu herritarren eskubideak administrazio publikoekiko harremanei dagokienez, eta horien artean, f) letran, ezartzen du "herritarrek eskubidea dutela

ez aurkezteko kasuan kasuko prozedurari aplikatzen dakizkiokeen arauetan eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk ere." Xedapen hori administrazio publiko guztiei aplikatzeko den oinarrizko legeriaren zati da eta, halaber, Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 9.4. artikuluan jaso da: "Herritarrek eskubidea dute kasuan kasuko prozedurari aplikatzekoak diren arauak ezartzen ez dituzten agiriak edo jadanik Foru Komunitateko administrazioaren esku daudenak ez aurkezteko. Horretarako, herritarrek agiria dagoen espedientea identifikatu ahal izanzen dute, eta organo eskudunek ere eskatu ahal izanzen diete interesdunei hori egin dezaten."

Ikusita Foru Komunitateko administrazioak ez dituela zenbaitetan manu horiek errespetatzen, bereziki beken edo dirulaguntzen deialdietara aurkezten diren herritarrei agiriak eskatzerakoan, parlamentari naizen aldetik zenbait ekimen aurkeztu ditut Legebiltzarrean. Nafarroako Parlamentuaren 2004ko irailaren 30eko Osoko Bilkuran, berriz, Gobernuari auzi horri buruz aurkeztutako jabeldura bat jorratu zen, eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak ondokoak adierazi zituen, Bilkura Egunkarian jasota dagoenaren arabera:

“Nire ustez, auzia oso argi dago, eta Gobernuaren izenean lehen hitz hauetatik hasita adierazi behar dizudana da Gobernuaren borondatea eta jarduna ezin dela besterik izan lege manu bat era eragingarrian betearazten jarraitzea baino, eta jarraitzea diot, lege manu hori, jabelduraren testuak dioen bezala, lege mailako araua baita, administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen arloan duen eskumen osoa baliatuta Estatuak emana, eta hortaz, administrazio publiko guztiek Espainia osoan bete beharrekoa.

Eta Nafarroako Gobernuaren borondatea denez administrazio-tramitazioa sinplifikatzea, administrazioa modernizatzea eta, horrenbestez, herritarrek administrazioaren aitzinean dituzten eskubide guztiak bermatzea, bai administrazioarekiko harremanetan bai euren artekoetan, eta modu eragingarrienean bermatzea eta betearaztea herritarrek duten eskubidea, kasuan kasuko prozedurari aplika dakizkiokeen arauetan eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk ere ez aurkeztekoa, duela zenbait hilabete abiarazi zen, parlamentari horrek ondo dakien legez, idazkari teknikoak koordinatzeko batzorde bat, departamentuekin eta haien menpeko erakunde autonomoekin lanean ari dena administrazio publikoekiko harremanetan eta, jakina, Foru Komunitateko administrazioarekikoetan ere, legeek herritarrei aitortzen dizkieten eskubideak gogobetetze mailarik handienarekin betetzen direla lortzeko. Hortaz, nik uste dut argia eta nabarmena dela, ezin bestela izan, gure administrazioaren esparruan 35.f) artikulua xedatzen duena betetzen dela bermatzeko Gobernuak duen asmoa.”

Horrenbestez, xede horrekin, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeko xedapenak zuzendu ditu; izan ere, onuradunek beren tributu-betebeharren ordainketan egunean egotearen ziurtagiria (datu hori, noski, Foru Komunitateko administrazioak badu) aurkezteko betekizunaren orde, haietan egunean egoteko betekizuna ezarri da (9. artikuluko e) letra), eta, halaber, ezarri da ez dela eskatuko aipatutako betekizunak edo baldintzak betetzen direla froga dadila, baldintza horiek foru erkidegoko administrazio organoek ziurtatu beharrekoak badira edo egiaztatzea haren esku badaude, Nafarroako Foru Komunitateko adminis-

trazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 9.4 artikuluan ezarritakoarekin bat (13. artikuluko 8. idatz-zatia).

2006ko apirilaren 7ko 42. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren martxoaren 24ko 78/2006 Foru Agindua argitaratu zen; haren bidez, Europar Batasuneko gaietan aritzeko lau prestakuntza beka emateko deialdia onetsi zen. Deialdi horretako zortzigarren oinarrian ondokoa xedatzen da: “Jarduketan hasten denean, eta Nafarroako Ogasun Publikoko zergadunak badira, onuradunek ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute zerga betebeharrak eguneraturik dituztela egiaztatzeko, bai eta zinpeko aitorten edo promesa, helburu bererako bestelako departamentu, administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuen laguntza publiko bateraezinek ez dela jasotzen ari frogatzeko”.

Ez du ematen deialdi horren aipatu xedapena aipatutako legeriari ez eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak iragarritako asmoei egokitzen zaizkien. Onuradunak Nafarroako Ogasun Publikoko zergadunak badira, argi dago azken horretan badagoela eskatzen den datua, alegia, zerga-betebeharrak eguneraturik ba ote dauzkaten. Eta jasotzen ari diren beste laguntza horiek foru erkidegoko administrazio beste departamentu batzuetakoak badira, datu hori ere administrazioak badauka, eta halere interesdunei exijitzen die hura egiaztatzeko. Are harrigarriagoa da foru erkidegoko administrazioaren beste organo batzuek, beste deialdi edo laguntza batzuetan, zuzen betetzen dituztela aplikatzekoak diren araua, hain zuzen arestian aipatu duguna.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

Zergatik aipatu foru aginduan interesa duten herritarrei eskatzen zaie foru komunitateko administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa, azaroaren 26ko 30/1992 legearen 35. f) artikulua ezartzen duenaren urraketa agerikoa eginez?

Ba al dago horri buruzko irizpide bateraturik foru erkidegoko administrazioan, praktikan departamentu batzuetatik besteetara eskakizunak hainbeste alda ez daitezen?

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza nagusiaren web orria oraindik ere gaztelania hutsean egoteko arrazoiei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza nagusiaren web orria oraindik ere gaztelania hutsean egoteko arrazoiei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko erregela-

menduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilari Luis Campoy Zueco jaunak idatziz erantzun diezaion. (Parlamentari honek iragarri zuen galdera hau idatziz erantzuteko egingen zuela, kontseilariak ahoz erantzuteko egin nion galderari emandako erantzuna eta gero; 2006-04-11n erantzun zuen Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean, baina, egia esan, ez zuen ezer ere argitu).

Zergatik dago Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren web orria soilik gaztelaniaz, legegintzaldia hasi zenetik bi urte eta gehiago iragan direnean?

Iruñean, 2006ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, *Eta jaietan, zer?* kanpainari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI AURELIA LUMBRERAS IÑIGO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak egindako galdera, *Eta jaietan, zer?* kanpainari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

- *Eta jaietan, zer?* kanpainan, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak 2006ko martxoaren 20an aurkezturiko azalpenaren arabera, Didart enpresak diseinu eta maketazio lanak egin zituen. César Oroz izan zenez komikia eta hura elastikoetan inprimatzeko egokitzapena egin zituena, eta kartelak, berriz, Imagrafek egin zituenez, zein izan dira Didart enpresaren diseinu eta maketazio lanak?

- Kontuan izanda Nafarroako Emakumearen Institutuak, parlamentari honen iritziz, teknikari nahiko dituela halako lanak egiteko, zenbat ordu eman zituen horretan eta zenbat herri bisitatu zituen Arantzazu Zugasti Arizmendik eta zergatik kontratatu zen kanpainarako?

- Markoaren diseinuaren "soiltasuna" ikusita, zenbat unitate egin zituen "Cuadros Ibáñez" enpresak 2.205,11 euro kobratzeko?

Iruñean, 2006ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Aurelia Lumberras Iñigo

Galdera, berdintasuna eta bateragarritasuna: konpromiso bateratu baterantz esloganaren pean egin den enpleguari buruzko nazioarteko I. biltzarraren kostuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI AURELIA LUMBRERAS IÑIGO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak egindako galdera, berdintasuna eta bateragarritasuna: konpromiso bateratu baterantz esloganaren pean egin den enpleguari buruzko nazioarteko I. biltzarraren kostuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Zenbat diru kostatu du, kontzeptuen arabera zehazturik, "Berdintasuna eta bateragarritasuna: konpromiso bateratu baterantz" esloganaren pean egin den enpleguari buruzko nazioarteko I. biltzarrak?

Iruñean, 2006ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Aurelia Lumbreras Iñigo

Galdera, Osasun Departamentuaren 2005eko aurrekontuan egin diren aldaketei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, Osasun Departamentuaren 2005eko aurrekontuan egin diren aldaketei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan.

2005eko bukaeran, kreditu transferentzien eta gehikuntzen bitartez, departamentuaren aurrekontuan ia hamazazpi milioi euroko aldaketak egin ziren.

Zergatik egin dira aldaketa horiek 2005eko aurrekontuan?

Iruñean, 2006ko apirilaren 12an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres

Galdera, Osasun Departamentuaren 2005eko aurrekontuan aurreikuspenak eta plangintza oker egin izanari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, Osasun Departamentuaren 2005eko aurrekontuan aurreikuspenak eta plangintza oker egin izanari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres

Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan.

2005eko bukaeran, kreditu transferentzien eta gehikuntzen bitartez, departamentuaren aurrekontuan ia hamazazpi milioi euroko aldaketak egin ziren. Kontuan izanik hamahiru milioi eta erdi euro botiken kontusailerako kreditu-gehikuntza bat direla, honakoa jakin nahi da:

Zein arrazoi daude aurrekontuen aurreikuspenak eta plangintzak oker egin izateko?

Iruñean, 2006ko apirilaren 12an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Osasun Departamentuaren Nafarroako lan osasunari buruzko plana izeneko kontusaila murriztu izanari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, Osasun Departamentuaren Nafarroako lan osasunari buruzko plana izeneko kontusaila murriztu izanari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres

Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan.

2005eko bukaeran, kreditu transferentzien eta gehikuntzen bitartez, departamentuaren aurrekontuan ia hamazazpi milioi euroko aldaketak egin ziren. Kontusail batzuetan aurrekontu-aldaketa handiak izan dira; hona galdera:

Zergatik murriztu da 200.000 eurotan Nafarroako lan osasunari buruzko plana izeneko kontusaila?

Iruñean, 2006ko apirilaren 12an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Osasun Departamentuaren laneko arriskuei eta prebentzio neurriei buruzko informazio plana izeneko kontusaila murriztu izanari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, Osasun Departamentuaren laneko arriskuei eta prebentzio neurriei buruzko informazio plana izeneko kontusaila murriztu izanari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres

Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan.

2005eko bukaeran, kreditu transferentzien eta gehikuntzen bitartez, departamentuaren aurrekontuan ia hamazazpi milioi euroko aldaketak egin ziren. Kontusail batzuetan aurrekontu-aldaketa handiak izan dira; hona galdera:

Zergatik murriztu da 50.000 eurotan laneko arriskuei eta prebentzio neurriei buruzko informazio plana izeneko kontusaila?

Iruñean, 2006ko apirilaren 12an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Osasungintza finantzatzeko funtsetik Osasun Ministerioak emandako diruari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, Osasungintza finantzatzeko funtsetik Osasun Ministerioak emandako diruari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan.

2005eko bukaeran, kreditu transferentzien eta gehikuntzen bitartez –Parlamentura igorri ziren–, departamentuaren aurrekontuan ia hamazazpi milioi euroko aldaketak egin ziren. Kontuan izanik teknologiarako materialaren kontusaila 56.000 eurotan gehitu dela, eta “Estatuko administrazioaren kapital transferentziak” kontusailean izaniko dirusarrera uste baino handiagoen kargura finantzatu dela, Osasun Ministerioak osasuna finantzatzeko funtsetik eman duen dirulaguntzari esker, honakoa galdetu nahi dugu:

– Zenbat diru jaso da guztira Estatuko administrazioak eginiko kapital transferentzien bitartez, osasuna finantzatzeko funtsetik Osasun Ministerioak emaniko dirulaguntzari esker hain zuzen?

– Kontuan izanda osasuna finantzatzeko estatuko funtsetik heldu den ekarpena, zein erabilera eta xede eman zaizkie funts horiei?

Iruñean, 2006ko apirilaren 12an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, oinarrizko osasun laguntzako zentroetan geriatrak jartzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, oinarrizko osasun laguntzako zentroetan geriatrak jartzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan.

2005ean oinarrizko osasun laguntzako zentroetan geriatrak jartzeari buruzko eskaririk helarazi al dizu Gizarte Ongizateko kontseilariak? Hala baldin bada, eskaria bera eta emandako erantzuna nahi ditugu.

Iruñean, 2006ko apirilaren 18an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren karietara egindako inbertsioei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren karietara egindako inbertsioei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Kultura Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko egin behar zituen inbertsioei buruz parlamentu-talde honek eskatu zuen informazioa jaso ondoren, eta hartan bildutako kontusailak xeheki aztertu ondoren, Eusko Alkartasunak berriz ere eskatu nahi du ondoko kontusail hauek zehazki azal ditzan (zenbat diru zein talde edo enpresari, alokairua ordaintzen ari ote den, zenbateko alokairua ordaintzen ari den...):

– Apirilaren 7an: Ignazio Loiolakoaren eta Frantzisko Xabierkoaren Kanonizaziorako Apoteosia. Ensemble Elymak eta Iruñeko Ganbera Abesbatzak eskainia Baluarte Auditorioan. 115.000 euroko aurrekontua.

– Apirilaren 9an: W.A. Mozarten Meza Do klabean, Pablo Sarasate Orkestra eta Iruñeko Orfeoi-

ak emana Frantzisko Jatsukoaren aretoan: 61.000 euroko aurrekontua.

– Ekainaren 3an: Madredeus. Faulas do Tejo. Frantzisko Jatsukoaren aretoa. Aurrekontua: 78.700 euro.

– Ekainaren 10ean eta 11n: Noa, Live 2006. Frantzisko Jatsukoaren aretoan. Aurrekontua: 174.400 euro.

– Ekainaren 5ean: The Chieftains. The wide world over. Frantzisko Jatsukoaren aretoa. Aurrekontua: 92.400 euro.

2006ko udaberria eta udazkena. El mundo alrededor de Javier. Nafarroako Museoa, Artxibo Nagusia, Bertizko Jaureria eta Golem zinemak. Aurrekontua: 197.200 euro.

– Apirila-urria: Xabier-Arte. Xabierko izpiritualtasun zentroa. Antolatzailea: Nafarroako Kutxa Fundazioa. Aurrekontua: 700.000 euro.

– Maiatza-iraila: Xabier. Eskulturak kanpoan. Jacques Lipchitzen lanak. 200.000 euro.

– Uztailaren 15etik abuztuaren 15era. Munduan barnako zikloa. Europa, Asia eta Afrikako taldeak. Frantzisko Jatsukoaren aretoa. Aurrekontua: 555.600 euro.

Gainera, berriki 350.152 euroko kontusail bat agertu da, eta gure parlamentu-taldeak jakin nahi du zertan inbertitu den.

Halaber, kontusail batean dirua gehitu da, kredituak sortuz, zenbait erakunde eta entitaterekin sinatu diren edo sinatzekoak diren lankidetzak akordioen ondorioz. EAren ustez hitzarmen horiek itxita egon beharko lukete; haien azalpen ekonomikoa ere ezagutu nahi dugu.

Iruñean, 2006ko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat, barneko igoera txanda murriztuan, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa.

Behin betiko izendapena

Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat, barneko igoera txanda murriztuan, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onetsi zuen lehendakariak 2004ko maiatzaren 7ko erabaki baten bidez. Deialdiako 9. oinarriak –2004ko maiatzaren 7ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen– ondokoa xedatzen du: “auditore izendapen behin betikoa lortzeko, hautagai proposatu eta behin-behineko izendatuak urte beteko praktikaldia gainditu behar du”. Halaber, 10. oinarriak ondokoa ezartzen du: “praktikaldia bukatu eta “gai” kalifikazioa lorturik, Comptos Ganberaren lehendakariak behin betiko funtzionario izendatuko du. Izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da”.

Aurrekoarekin bat, praktikaldia bukatuta, M^a Asunción Olaechea Estanga auditore andrearen aprobetxamenduari buruz Ganberako kideek

du ten iritzia entzun ondoren, hona lehendakariaren

ERABAKIA:

Lehena. M^a Asunción Olaechea Estanga andreari praktikaldia burutu ondoren “gai” kalifikazioa ematea.

Bigarrena. M^a Asunción Olaechea Estanga andrea Nafarroako Comptos Ganberako funtzionario izendatzea, behin betikoz, auditore mailarekin.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Laugarrena. Erabaki hau interesdunari, Comptos Ganberako idazkari nagusiarri eta administratzaileari jakinaraztea, bere ondorioak sor ditzan.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Comptos Ganberako Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urtebete 43,95 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »</p>	<p>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA</p>
---	--